

### 1. AGUR ZUBEROA

Sor lekua utzirik gazte nintzelarik, Parisen sartu nintzan korajez beterik. Plazerez gose eta buruan harturik behar nuela alegera bizi. Bostetan geroztik, negar egiten dit, Zuberoa zuri.

*Agur Zuberoa, bazter guzietako xokorik ederrena! Agur sorlekua, Zuretzat ditut ametserik goxuenak. Bihotzan erditik bostetan elki deitadazu hasperena; zu utzi geroztik bizi naiz trixterik, abandonaturik, ez baita herririk, Paris ez besterik, zu bezalakorik.*

Palazio ederretan gara alojatzen, eta segur goratik aire freska hartzen; Gain behera so eginik baitzait iruditzen Orhi gainen naizela agitzen... Bena ez dira hemen bazterrak berdatzen, txoriak kantatzen!

### 2. ALA KINKIRI ALA KUNKURU

Erran dut, erranen eta errango, ez naiz isilik egongo, plaza hontako dama gazteak ez dira monja sartuko.

Ala kinkiri, ala kunkuru, ala kinkiri kunkuru kanta, ala kinkiri kunkuru kanta ez dira monja sartuko.

Erran dut, erranen eta errango, ez naiz isilik egongo, plaza hontako gizon gazteak ez dira fraile sartuko.

Ala kinkiri, ala kunkuru...

Erran dut, erranen eta errango, ez naiz isilik egongo, plaza hontako gazte guztiak ezkontzan dira sartuko.

### 3. AMAK EZKONDU NINDUEN

Amak ezkondu ninduen *hamabost urtekin*, (Bis) senarrak bazituen larogei berakin, eta ni, neskabila gaztea, *agure zaharrakin*. (Bis)

Ama, zertarako dut nik *agure zahar hori?* (Bis) hartu ta leihotikan jaurti behar dut nik, ai ene! ene leihotikan *jaurti behar dut nik*. (Bis)

"Neska, hago isilikan, *aberatsa dun hori*, (Bis) pazientziz pasa itzan urte bat edo bi, hori hilez geroztikan *biziko haiz ongi*." (Bis)

Deabruak daramala *interesatua*, (Bis) hau baino nahiago dut adin berekoa ai ene! hoge bat urteko *gazte loratua*. (Bis)

### 4. . ZALDIKO MALDIKO

Iruñeko mezetak gaur hasiko dira, ibiliko gara gu jira ta bira. Peña berria dugu, Zaldiko izena, karrikadantzan baita beti lehena.

Aintzina, aintzina, zaldikotar jendea etengabeko dantzan gogotik aurrera.

Aintzina, aintzina, Estafetan barrena, zezen beltzen aurrean hau da zirrara!

Zaldiko!!! Maldiko!!!

Iruinxeme-alaben txoko egokia, euskal giro ederra, zoragarria, festazaleendako apropos egina, gurekin aspertzea hori ezina.

Aintzina, aintzina....

# IRUÑEAN KANTUZ

*Sanferminak 2009*

### 5. FURRA FURRA

Furra, furra, fandangoa, hortxe duzu fandangoa geure gustukoa (bis)

Gaur goizean jeiki naiz suerte onean, tanke bat topatu dut neure kafesnean; ez dakit zer daukagun bake ala gerra baina nik badaezpadan egin dut puzkerra.

Zerbait egitekotan zuzen eta artez zorri bat garbitu dut ur pistola batez, orain galdurik nago beldurrez beteta muniziorik gabe gelditu naiz eta.

Neure arma bakarra dut akordeoia, hauspoari eraginez dirudi lehoia; eskua jaten badit on egin dezaion Cervantsei holakorik gertatu zitzaion.

Eta orain banoa berriro ohera, bila ez badatozkit lolo egitera; bihar ikusiko da zer dagoen berri, jakintsuenak ere ezin du igerri.

### 6. BEGIAK PARREZ PARREZ

*Begiak parrez-parrez, bihotza negarrez*, (Bis) halaxe joaten nintzan, maitia, zugandik, dolorez. (Bis)

*Ama zuriak neri, parian pasata*, (Bis) ez dit agurrik egin, maitia, burua jirata. (Bis)

*Ama zuriak neri ez agur eiteko*, (Bis) zer palazio dauka, maitia, zuri emateko? (Bis)

*Palazio eder bat haitzaren gainian*, (Bis) ez da euririk sartzen, maitia, ari ez dunian; ai, ai, ai. ez da haizerik sartzen, maitia, ez dabilenian.

### 7. RIAU RIAU

Kanta, dantzatu, josta ta ospa, zauli, arin, karrikadantzan. Zatoz gure plaza zabalera, goza gure Sanferminetan.

Iruñerriko gariak horailtzen diren artean, badago zer ospatua gure hiriburu maitean, hanketan alegrantzia zirrara bihotzean, karrikan mila kolore, soinu-kantu betean. Riau riau!

Ongi-etorri Iruñera, herri-festen bilgunera. Herria da euskarria, eragile, ardatz nagusia. Riau riau!

Goiznabarreko doinutan gau-txoriak dantzari, zezen beltz adar zorrotzak Estafetan aitzindari, jan-edan goxo-goxoak, hamaika soinuari, kiliki ta erraldoiak txikien gozagarri. Riau-riau!.

Zezen plazako eguzki alde beroa Peña-koadrilen neska-mutilen giroa,

ospa ditzagun denok gogotik Sanferminak. Hasi da festaroa!. Riau riau!.

Gure herriari berez darion izana, zahar ta berri, zuri-gorri, auzolana. ospa ditzagun denok gogotik Sanferminak. Hasi da festaroa!. Riau riau.

### 8. ARDO GORRI NAPARRA

A, a, a, ardo gorri naparra eztarriko lakarra kentzen hau den azkarra a, a, a, ardo gorri naparra.

E, e, e, ni ardoaren alde goiz eta arratsalde beti nahiz haren galde e, e, e, ni ardoaren alde

I, i, i, hi haut nire edari hik jartzen nauk kantari ta sarritan dantzari i, i, i, hi haut nire edari.

O, o, o, hau biontzako dago, edan dezagun oro zuk orain ta nik gero: o, o, o, hau biontzako dago.

U, u, u, ardo madarikatu! gau txorien teilatu alfer denen ostatu u, u, u, ardo madarikatu!

### 9. GORA TA GORA BETI

Gora ta gora beti, haik gora Lapurdi! Euskerak bizi gaitu eta bizi bedi. Gorantza doa agudo kapitala eta Lapurdi beti dago apala, aldrebesturik dago mundu zitala, konformatzen ez bagara ze pekatu mortala!

Gurea ez da bizi-modu normala lurra lantzeko haitzurra eta pala, lanaren truke kobratzen erreala. Benetan da miserable euskaldunon jornala.

Jabeek dute kontzientzi zabala, kaskatu dute gure lurren azala, baina Lapurdi ez da hain zerbitzala; burruka garbian dago hori da printzipala.

### 10. IRUÑEKO FERIETAN

Iruñeko ferietan Iragan Sanferminetan, ehun zaldi arribatu Andaluziatik tropan; merkatu eder bat zautan, zaudelarik bi lerrotan.

Bat zen pikarta-xuria; hartan bota dut begia. Andaluzak egin zautan bi untz-urreren galdia, Eskain orduko erdia, «Harzak, hire duk zaldia». Han nintzen harrapatua, aginduaz dolutua: urruntzeko izan banu hirur arditen lekua...! gizonez inguratua, iduri preso hartua.

Zeruko Jainko Jaun ona! Zerk ekarri nu ni huna? Andaluz bat zazpi urtez presondegian egona, Laburzki mintzo zautana: «Konda niri hitzeman».

«Jauna, nahi dut pagatu, Bainan lehenik miratu». «Zaldiaren miratzeko denborarrikan ez duzu; Orai soma kondazazu, Gero miratuko duzu».

### 11. ITURENGO AROTZA

Ituringo arotza, Erramun Joakin, Hasarre omen zaude zeren degun jakin, Santurik ez daiteke fiatu zurekin: San Kristobal urtuta joaliak egin.

Arotzak erran dio bere andreari: "urtu behar dinagu; ekarran santu ori." "gizona, nora zoaz? bekatu da hori." "etzionagu erranen sekulan nihori."

Ituringo garaile, Ramuntxo Joakin, Hasarre omen zira zeren dudan jakin. Konfesa zaite ongi erretorarekin: Ez dute zer fidatu santuek zurekin.

Kobrezko santurikan  
inon bazarete,  
Egoten al zarete  
hemendik aparte:  
Baldin arotz horiek  
jakiten badute,  
Joareak egiteko  
urtuko zaituzte.

### 12. IXIL IXILIK

Ixil ixilik dago,  
kaia barrenian  
untzi txuri polit bat  
uraren gainean. (bis)

Goizeko ordu bietan  
esnatutzen gara  
arrantzaliarekin  
joateko urrutira.

Pasatzen nintzanean  
zure leihopetik  
negarrak irteten dit  
begi bietatik (bis)

Zergaitik (5 aldiz) negar egin?  
Zeruan izarrak dagoz  
itsaso aldetik. (bis)

Bat, bat, bat, bart parrandan ibili,  
bart parrandan ibili.

Bi, bi, bi, ez naiz ondo ibili,  
ez naiz ondo ibili.

Hiru, hiru, hiru, kolkoa bete diru,  
kolkoa bete diru.

Lau, lau, lau, xardina bakalau.

Anteron txamarrotia,  
Frankoren bibotia  
Haretzek ez dauka,  
ez dauka,  
preso Euskalerrria (bis).

Hau duk, hau duk,  
hau duk umoria,  
kontsolatzeko, kontsolatzeko,  
euskaldun jendia

Kalian gora, kalia behera,  
kalian gora zezena.  
ai, ai, ai, ai  
kalian gora, kalia behera,  
kalian gora zezena.

Kalian gora, kalia behera (3)  
kalian gora zezena.

### 13. BAT, BI, HIRU, LAU...

Bat bi hiruhau, bat bi hiruhau,  
bost sei zazpi, bost sei zazpi,  
euskaldunok irabazi, irabazi,  
aurrera!

*Kalez kale gabiltza  
euskaraz kantari,  
festa giro onean,  
ez al da nabari. (bis)*

Bat bi hiruhau, bat bi hiruhau...

*Festazaleak gara  
denok txikitatik,  
baina sasoi betean  
gabiltza oraindik.(bis)*

Bat bi hiruhau, bat bi hiruhau...

*Umore ederrean  
kantuan gogotik,  
Bartzinaren debeku  
ororen gainetik.(bis)*

Bat bi hiruhau, bat bi hiruhau...  
*Konpartsakoak dira  
gure erregeak  
bestela, gu ez gara  
erregezaleak. (bis)*

Bat bi hiruhau, bat bi hiruhau...

*Bartzina joanen baita  
datorren urtean,  
Karrikiri zezenak  
segika atzean. (bis)*

Bat bi hiruhau, bat bi hiruhau...

*Sanfermin ferian dira  
zaldi ta astoak,  
denetan hoberenak  
euskal zaldikoak.(bis)*

Bat bi hiruhau, bat bi hiruhau...

### 14. MADDALEN

Maddalen Iruriko  
fuian zirenian,  
zure parerik ez zen  
segur Xiberuan:  
pollit eta xarmanta,  
noiz gogua sutan,  
mutil gazteak oro  
ondotik zuntian.

Oi Maddalen, maddalen!  
OiMaddalen!  
Ene pentsamentuetan  
zu baizik ez nian.

# IRUÑEAN

## KANTUZ



*Sanferminak 2009*

Oi Maddalen, Maddalen!  
Oi Maddalen!  
erran bazenu zerbait,  
erranen niezun bai!

Beti zuri pentsatzen,  
lo gutxi egiten.  
Zu aldiz, arte hortan,  
bestekin laketzen.  
Ni ezagutu gabe,  
saihetsilat uzten,  
Zer behar nuke egin?  
Enuzu ausartzen.

Maddalen iruriko  
urteak iragan,  
Eta gu zerentako  
bedere lekuetan?  
Ezin deliberatyuz,  
zu, ordu hunetan,  
hain sarri batu zira  
lagun gabezian.

### 15. MUTHIKO ALAIK

Uztailan, festazaleak  
badu zer egin,  
uztailan, ospa dezagun  
denok San Fermin.  
Hi ere festazalea baldin bahaiz,  
hator gurekin eta dantzatu  
neska-mutil alaiokin!

Muthiko peñan esaten dute  
sanferminak aldatu egin direla.  
Hainbeste itxuraz,  
hainbeste plantaz,  
luxuzko gala ematen dutela.  
A ze prezio, ze gorakadak,  
ze ekitaldi txit ofizialak.  
Gora zapiak, behera gorbatak,  
aurrera sanfermin herritarrak!  
Entzun Muthiko Alaiak,  
Estafeta karrikatik,  
entzun Neskaxa Alaiak,  
hemengo karrikadantzan  
aitzindariak gara,  
gure peñak sortzen baitu,  
girorik jatorrena!

Ingles bat Sanferminetan  
parrandan dela,  
ausarki joan da entzierroan parte  
hartzera,  
ederki burlatu ditu zezen denak,  
baina dibino baten bultzadak bidali  
du ospitalera!

Muthiko peñan esaten dute  
sanferminak aldatu egin direla.  
Hainbeste itxuraz, hainbeste  
plantaz, luxuzko gala ematen  
dutela.  
A ze prezioak, ze gorakadak, ta ze  
ekitaldi txit ofizialak.  
Gora zapiak, behera gorbatak,  
aurrera sanfermin herritarrak!

Entzun Muthiko Alaiak...

### 16. ARBOLA

Arbola gainean  
txoria da kantatzen  
kantatzen da eta  
bazterrak inarosten  
inarrosi eta hostoa da erortzen  
euskal bihotza da bilaiz egoiten  
bilaizi ondoan han dira errabian  
xiloka beltzian handik elki nahian  
handik elki eta kantatzera abian  
lagun zombait bidian ikusiko agian.

La, la, la, ..

Gaur Euskal Herrian zuhaina da  
landatzen  
landatzen da eta gero fruitu  
ekartzen  
fruitu ekar eta haizea da kexatzen  
iraultzalaria madarikatzen...  
jar giten ildoan igeli izerdian  
izerdian eta lepo zainak hegian  
besoiez ta botzez, hortzez eta  
haginez  
lagun bat zorionez ikusiko dugunez.

La, la, la, ...

### 17. TXANTXIBIRI

Txantxibiri, txantxibiri gabiltzarian  
Elorrioko kalia,  
hamalau atso tronpeta jotzen  
zazpi astoren gainian.

*Astoak ziren txiki-txikiak,  
atsoak, berriz, kristonak!  
Nola demontre konpontzen ziran  
zazpi astoren gainian (2).*

*Saltzen, saltzen,  
txakur txiki baten  
karameluak,  
Está muy bien!  
esaten du konfiteroak (2).*

Quando vamos a Otxandiano  
karnabal egunian,  
me cagüen la mar,  
comeremos chocolate  
sonbreruaren gainian. (2)

### 18. GURE AITAK AMARI

*Gure aitak amari  
gona gorria ekarri; (2)  
berriz ere maiteko dio  
gure amak aitari.  
Gure aitak amari  
gona gorria ekarri.*

*Gona gorri gorria  
zazpi jostunek josia;(2)  
berriz ere maiteko dio  
gure amak aitari.  
Gure aitak amari  
gona gorria ekarri.*

*Gure amak aitari  
praka berriak ekarri;(2)  
berriz ere maiteko dio  
gure aitak amari.  
Gure amak aitari  
praka berriak ekarri.*

*Praka berri berriak  
zazpi jostunek josiak;(2)  
berriz ere maiteko dio  
gure aitak amari.  
Gure amak aitari  
praka berriak ekarri*

### 19. BOGA, BOGA

Boga, boga mariñela, mariñela  
joan behar degu urrutira, urrutira  
bai Indietara, bai Indietara.(2)

Ez det, ez det, ez det,  
nik ikusiko  
zure kai ederra  
kai ederra.  
Agur, agur, agur,

Ondarroako  
itsaso bazterra,  
itsaso bazterra. (2)

Mariñela, mariñela,  
boga!  
Mariñela.

### 20. IKUSI MENDIZALEAK

Ikusi mendizaleak  
baso eta zelaia,  
mendi tontor gainera  
igo behar dugu.

Ez nekeak, ezta bide txarrak  
gora, gora Euskalerrria.  
Gu euskaldunak gara  
Euskal Herrikoak. (2)

Hemen mendi tontorrean  
euskal lurren artean  
begiak zabaldurik  
bihotza erreta.

Hain ederra, hain polita da ta,  
gora, gora Euskal Herria.  
Gu euskaldunak gara  
Euskal Herrikoak.(2)

### 21. BARATZE BAT

Hau da egün ederra  
mila txoriek kanta  
tziauri ene erregina  
besoak zuri ditizüt para.

Baratze bat nahi deizüt egin  
Amets segretüenekilan  
Liliak egün jauntsi ederrenetan  
*Mila kolorez dantzatan.bihotzetan.(2)*

Gaü beltz ta sakonetik  
Elkitzen niz hoztürük  
Bihotza hain tristerik  
Zütaz hainen berantetsitürük.

Baratze bat nahi deizüt egin

Karrosa bat hor dügü  
Kanpoan gure\_haidürü  
Ez gal haboro denbora  
Hiskor beitago amodioa

Baratze bat nahi deizüt egin

Maitarzün berriari  
ilargiak dü argi  
emanen deikü aski  
gük elgar maita dezagün beti.

Baratze bat nahi deizüt egin...